

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, Ekonomia eta Ogasun sailburu **Carlos Agirrerren AGERRALDI ESKARIA** egiten du, “Standard & Poor’s rating agenziaren kalifikazioa jaitsi izanaren inguruan” azalpenak eman ditzan, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak batzordearen aurrean.

ZIOA

Standard & Poor’s nazioarteko agenziaren arabera, aurrerantzean EAEk AA+ izendapena izango du; hau da, A hirukoitzaren izendapena galdu du. Ondorioz gobernuak ateratako zorrarengan eragin zuzena izango du: merkatuetan finantzabidea lortzeko baldintzak gogortuko ditu, segurutik. Beraz, garestitu egingo da zor publikoa, hau da, trukean ordaindu beharreko interesak igo egingo dira. Horren aurrean, ekonomia sailburu Carlos Agirrek adierazi du “nota ona da, hamarretik bederatzi puntu” direla. Ahaztu egin zaio aitortzea kalifikazioan balioa galtzea txarra dela. Are gehiago, Eusko Jurlaritzak jaulkiko duen 2.038 milioi euroko zor publikoan izango duen eraginaren inguruan ez duela merkatuetan arazo handirik espero adierazi du. Hori horrela izanik ere,

AGERRALDI ESKAERA:

Ekonomia sailburuaren agerraldia eskatzen du kalifikazioa galtzeak zor publikoan izango duen eragina zein izango den azal dezan.

Gasteizen, 2010eko apirilaren 30ean

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea